

EMAKUMEEN ELKARTEEI 2021EKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. ARTIKULUA- DIRULAGUNTZAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak 2021 urtean herriko emakumeen elkarteei dirulaguntzak emateko prozedura arautzea, eta xedea du aipatu elkarteen funtzionamenduari eusteko gastuak eta antolatzen dituzten jarduerak finantziatzea.

Dirulaguntza hau emateko lehiaketa prozedura erabiliko da, kontuan hartuta Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak onartu zuen Udal Dirulaguntzen emakida arautzeko Ordenantza Orokorrean finkaturiko xedapenak (BAO zk: 232, 2020ko abenduaren 2koa); maiatzaren 31ko Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauko aginduak; eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/03 Lege Orokorrekoak eta aplikatu daitezkeen legeria osagarrikoak ere bai.

2. ARTIKULUA- ERAKUNDE ONURADUNAK

2021 urteko dirulaguntza eska dezake irabazi asmorik gabeko edozein elkartek, baldin eta emakumeen eremuko jarduerak garatu eta sustatzeko asmoz eratu bada. Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Irabazi asmorik gabeko erakunde edo elkarteak izatea, legez eratuak eta Eusko Jaurlaritzako edo udaleko erregistroan edo bietan inskribatuak, jarduerak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen dutenak.
- Pertsona juridikoa bada, bere estatutuetan berariaz jasota edukitzea interes orokorrekoa edo zerbitzu publikokoa dela bere xedea eta irabazi asmorik gabe eratu dela.
- Agirien bidez egiaztatzea udal honen erregistroan zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.
- Bere jarduera Trapagaranen burutzea. Hala ere, salbuespenezko inguruabarrak ematen badira, banan banan aztertuko dira.
- Lehenago emandako dirulaguntzak itzultzeko prozedura irekitzera eraman duten auzietan sartuta ez egotea.

3. ARTIKULUA- SUBENTZIONATU DAITEZKEEN LERROAK

Bi subentzio lerro hauetan eska daiteke dirulaguntza:

1. Mantenurako eta gastu arruntentzako urteko dirulaguntza. Oinarri hauetan subentzionagarritzat jotzen diren gastuen %80 subentzionatuko da, gehienez.

2. Urtean zehar jarduerak eta proiektuak burutzeko dirulaguntza. Gehienez oinarri hauetan subentzionagarritzat jotzen 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra arte sortu diren gastuen %80 subentzionatuko da, gehienez.

4. ARTIKULUA- AURREKONTU ZUZKIDURA

Gastua 2021 urteko Udal aurrekontuaren 231-480.01 partidaren kontura egingo da.

Dirulaguntza-deialdi honetako gehienezko aurrekontu-zuzkidura 9.000 eurokoa da, eta hainbanaketa egin daiteke oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean.

5. ARTIKULUA- SUBENTZIONATU DAITEZKEEN PROGRAMAK ETA JARDUERAK

Honakoak arautzen dituzten oinarri hauek:

5.1.- Mantenuko eta gastu arruntentzako urteko dirulaguntza:

Mantenuko gastu arruntak subentzionatuko dira. Elkarre batek 2021 urtean zehar egindak jarduerak eta proiektuengatik gehienez eska dezakeen dirulaguntza ez da 1.000 eurotik gorakoa izango, ondoren zerrendartzen diren kontzeptu guztiengatik:

- Lokala garbitzeko, konpontzeko eta artatzeko gastuak.
- Ekipamendua edota materiala erostea, baldin eta zuzeneko harremana badu elkarre batek burutzen duen jarduerarekin. Ekipamendua edota altzariak erosten baditu, elkarre batek ezin izango du eskatu kontzeptu beragatik laguntzarik deialdi honen hurrengo lau urteetan, kirol ekipamendua kanpo geratzen delarik.
- Aseguruak: jarduerak bat antolatzeke kontratatzen direnak izan ezik, kasu horretan jarduerentzako dirulaguntza-lerrotik eska daitekeelako.

5.2.- Urtean zehar jarduerak eta proiektuak burutzeko dirulaguntza.

Elkarre batek 2021 urtean zehar egindako jarduerak eta proiektuentzako eska dezakeen gehienezko zenbatekoa 11.300 eurokoa da.

Dirulaguntza hau herritar guztientzako irekiak diren eta ohiko komunikabideetan (udal webgunean, udalaren eta elkarre batek Facebook-ean, karteletan, pantaila digitaletan, etab.) publizitatu diren jarduerentzako baino ez da izango.

5.2.1.- Gastu subentzionagarritzat jotzen dira kontzeptu hauengatik sortzen direnak:

- Elkarre batek garatzen dituen jarduerak eta helburuekin lotutako edo Elkarre batek pertsonak teknikoaren prestakuntzarako jardunaldiak, mintegiak, tailerrak etab. antolatzea.
- Bere jarduerak sustatzeko herritar orori zuzenduriko ekintzak egitea.
- Elkarre batek berezko jarduerak eta helburu diren proiektuak eta programak egiteagatik sortutako pertsonal-gastuak.
- Trofeoak eta sariak erostegatik gastuak, zuzenean lotuak subentzionaturiko jarduerarekin.
- Elkarre batek buruturiko jarduerak eta helburuak publizitzeko eta ezagutzera emateko jarduerarekin lotutako gastuak.
- Elkarre batek jarduerarekin lotutako kontsultak egiteagatik eta profesionalak baliatzeagatik gastuak.

- Erantzukizun zibileko aseguruua.
- Lanak editatzea formatu digitalean zein paperean, Trapagaran bada ardatz nagusia eta gehienezko zenbatekoa 500,00 euro, baldin eta konpromisoa badago lan hori herrian hedatzeko irabazi asmoriz gabe. Dagokion batzordean baloratuko da gaia edo planteamendua bat datozen oinarri hauen filosofiarekin.
- Elkarreak egindako jarduerarekin lotutako umezaintza zerbitzuak.

5.2.2.- Ez dira subentzionagarritzat hartuko ondorengo kontzeptuengatik sortzen diren gastuak:

- Finantza-gastuak eta banku-komisioak.
- Zerga-atxikipenik ez duten haborokinak.
- Klubeko edo elkarteko zuzendaritza taldearen edo presidentearen ordezkariak gastuak.
- Protokolo eta kirolaz kanpoko ospakizunak (bazkariak, lunchak...)
- Elkarrearen Zuzendaritza batzorde edo taldearen bidaiak-gastuak
- Higiezinak erostea.
- Jarduera piroteknikoak.
- Obren burutzapena
- Aisiarako baino ez diren bidaiak egitea.
- Erakunde eskatzailearen ohiko gastuak (alokairua, telefonoa, argia, etab.), subentzionaturiko jarduerarekin zuzenean lotuta ez badaude edo jarduera baten burutzapena justifikazio gisa aurkezten ez badute elkarre.
- Udalak berak dagoeneko egiten dituen jarduerak egitea.
- Ez dira subentzionagarriak izango xede komertziala duten jarduerak.
- Jarduerak edo ekitaldian antolatzeke egiten diren edozein motatako lan edo jarduketagatiko kalte-ordainak, lanok ez dituztenean betetzen gaur egungo lan legeriaren baldintzak (lan-kontratua, Gizarte Segurantzari ordaintzea, etab.)
- Dirulaguntza eskatu den proiektuarekin zerikusirik ez duten erakundearen jarduerak egitea.

Hala ere, Dirulaguntzen Oinarri hauen bidez jasotako laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako jasotako beste laguntza batzuekin, baina beste dirulaguntza bateragarri batzuk lortzeagatik jardueren kostua edo adostutako gastuak gaindituko balira, soberakina Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari itzultzeko prozedura hasiko da.

6. ARTIKULUA- ESKABIDEAK

Eskabidea, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Alkateari zuzendua, Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Erkidearen

39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritako edozein modutara, hilabeteko epean, deialdi hau BAOn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, aldez aurretik Dirulaguntzen Base Nazionalean (BDNS) erregistratuko delarik. Eskabideari agiri hauek erantsiko zaizkio:

- I. eranskina, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Urteko dirulaguntza eskatzeko, II. eranskina, behar bezala bete eta sinatuta aurkezteaz gain, urtean zehar egin nahi duen beste jarduera edo programen ale ekarri beharko ditu, behar bezala sinatuta.
- Bere izenean edo elkartearen izenean eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia, (Udaletxean ez bada aurkeztu). Beste deialdi batzuetarako aurkeztu izan bada, deialdiaren izena eta entregatu zen data adierazi beharko dira, baldin eta agiria indarrean badago eta ez bada ezelako aldaketarik gertatu.
- Elkartearen IFZ-ren fotokopia, lehenago ez bada aurkeztu Udaletxean.
- Erakundearen estatutuen fotokopia, legalki eratuta eta Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen erregistroan sartuta dagoela egiaztatzen duen agiria, dagoeneko Udaletxean aurkeztu ez badira.

Halaber, eskaera guztietan hartu beharko da kontuan dirulaguntzen edo beste diru-iturri batzuren bidez eskuratuko den finantziazio-kopurua, guztira, ezin izango dela izan aurkeztutako programaren kostua baino handiagoa.

Udalak egokitzat jotzen dituen azalpen guztiak eska dakizkieke erakunde eskatzaileei, aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko.

Eskabidea ez balego behar bezala beteta edo aipatutako datu edo agiriren bat faltako balitz, 10 egun balioduneko epea emango litzaioke eskatzaileari akatsak zuzentzeko, ohartaraziz, zuzenketa egiten ez badu, bere eskabidea artxibatu egingo dela besterik gabe.

Deialdiari buruzko informazio guztia eskuragarri egongo da udal webgunean (www.trapagaran.net) eta Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean BDNS (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/ge/es/convocatorias>)

7. ARTIKULUA- BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Baloratzeko irizpideak hauek izango dira:

7.1 Diru-laguntzaren zenbatekoa elkarte bakoitzaren bazkide kopuruarekiko proportzionala izango. Kalkulu honetarako ez dira zenbatuko Emakume elkarte bat baino gehiagotan inskribaturik dauden pertsonak

Bazkide-kopurua	
250 edo gutxiago	25 puntu
250tik gora	50 puntu

7.2.- Jarduerak Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrriaren biztanlerian duten eragina balioztatuko da eta zein neurritan kolaboratzen duten Berdintasun eta Gizarte Ekintza Sailarekin, udal programetan, hala nola gabon-kanpainan, herriko jaietan, kultur irteeratan, Emakumeen Nazioarteko Egunean eta genero indarkeriaren aurkako programetan

Sailarekin noizbehinka elkarlanean aritzea..... 10 puntu

Sailarekin azturaz elkarlanean aritzea 30 puntu

7.3.- burutzen diren jardueretan euskara erabiltzea baloratuko da, 7.1 eta 7.2 ataletan punturen bat lortu bada

Eskaera

Eskaera osoa edo haren zatirik handiena 10 puntu

Eskaeraren zati txikiena 5 puntu

WEB gunea 5 puntu

Gizarte Ongizate eta Berdintasun Sailarekiko beste jarduera batzuk..... 5 puntu

8. ARTIKULUA- INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA

- a) Oinarri hauetan jasotako laguntzen emakidaren organo instruktorea Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Berdintasun eta Gizarte Ekintza Saila izango da.
- b) Ebazpen proposamena emateko eskumena duen organoa Dirulaguntza emateko Batzordea izango da eta Berdintasun eta Gizarte Ekintza Saileko politikariek eta udal teknikariek osatuko dute.
- c) Tokiko Gobernu Batzarra edo Alkate-Presidentea izango da ebazpen-organoa. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea lau hilabetekoa izango da. Dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatuko da epe hori, deialdiak geroagoko data batera atzeratzen ez badu.

Dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpenean honako datuak agertuko dira:

a) Dirulaguntza ematen zaien erakunde edo pertsona eskatzaileak

b) Gainerako eskabideen gaitzespen motibatua.

c) Zein xedapenen arabera eman den dirulaguntza.

d) Ordaintzeko zenbatekoa, modua eta epeak.

e) Jar daitezkeen errekurtsioak, zein organori zuzendu behar zaizkien eta horretarako dagoen epea.

Dena den, emakidaren ebazpena aldatu egin daiteke, eta beharrezkoa balitz, emandako dirulaguntza itzuli ere egin beharko litzateke, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero edo gainfinantziazioa sortzen duten beste erakunde publiko edo pribatuetatik laguntza lortuz gero.

Dirulaguntzaren ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari.

Gehienezko epea amaituta, ez bazaie legezko jakinarazpena egin pertsona edo erakunde interesdunei, eskabidea gaitzetsizat joko da administrazioaren isiltasunagatik.

9. ARTIKULUA- JAKINARAZPENEA ETA ARGITALPENEA

Ebazpena hartuta, jakinarazpena egingo zaie pertsona edo erakunde onuradunei, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera.

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak dirulaguntzak eman ahal izateko iragarki-oholean jarri beharko du ikusgai emakida eta ebazpenaren laburpen bat argitaratu behar du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eduki osoa zein lekutan dagoen ikusgai adieraziz, eta Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren webgunean zein Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean (BDNS) ere (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/ge/es/convocatorias>) ere plazaratuko du.

10. ARTIKULUA- DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Aipatu dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

1. Lehenengo zatia %60koa izango da, dirulaguntza onartu ondoren eta Tokiko Gobernu Batzarrak akordioa hartu eta gero.
2. Bigarren zatia %40koa, urtean egindako jardueri buruzko agiriak eta justifikazio-MEMORIA aurkeztu ondoren ordainduko da, eta saileko teknikariaren eta udal kontu-hartzailearen txostena ikusi eta gero.

11. ARTIKULUA- ONURADUNAREN OBLIGAZIOAK

Oro har, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko dirulaguntzen emakida arautzeko Udal Ordenantzaren 8. artikuluan jasotakoak, alegia:

1. Xedea bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo dirulaguntzaren emakidaren oinarriaren araberako jarrera izan beharko dute.
2. Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean betekizunak eta baldintzak betetzen direla, jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo erabiltzeko helburua betetzen dela egiaztatu beharko dute.
3. Subentzionaturiko jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea eta haien determinazioak betetzea.
- 4 Men egitea dirulaguntza ematen duen erakundeak, edo, haren erakunde laguntzaile batek egin beharreko egiaztatze-jarduketeki eta Kontu-hartzaileari dagozkion finantza-kontrolerakoei eta Kontu Publikoen Euskadiko Epaitegiaren legerian edo eskumen hori duten beste organo batzurenearan aurreikusita daudenei, eta batez ere, lokaletara sartzen uztea eta ikertu beharreko agiriak erakustea eta haien kopia egiteko aukera ematea.

5. Dirulaguntza jaso duten jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu badira, Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari jakinarazi beharko diote. Horien guztien berri izan eta berehala egin beharko da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioaren egiaztapena baino lehen.

6. Dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabarren aldaketa objektibo zein subjektiboaren berri.

7. Valle de Trápaga-Trapagarango Udalarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan egunean egotea egiaztatu beharko dute, dirulaguntza emateko ebazpena egin baino lehen.

8. Zigor- edota administrazio-zehapenik ez izatea sexuagatiko bereizkeriagatik edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko arau-hausteengatik, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioz, eta abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legislatiboaren ondorioz, zeinaren bidez onartzen baita Gizarte alorreko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legea eta martxoaren 22ko gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren hamalagarrenaren xedapen gehigarriaren testu bategina (besteak beste, mugarik ezarri gabe).

9. Pertsona edo erakunde onuradunek euskara eta gaztelania erabili beharko dute aldi berean subentzionaturiko programa edo jardueraren zabalkunderako egiten diren kartel, testu eta agirietan. Gainera, erabiltzen den hizkera eta irudiak ezin dira sexistak izan, eta ez dituzte betikoratuko rol matxista eta estereotipatuak. Halaber, derrigorrez jarri beharko da Udalaren logoa. Jarduera subentzionatua burutu dela justifikatzean egiaztatuko da betebeharrak hori bete dela.

10.- Emakidaren zioz eman dizkioten obligazio partikularrak, arauan edo deialdiaaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

11.- Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak ezartzea erabakitzen duen beste edozein obligazioa, dirulaguntzaren erabilera egokia eta subentzionaturiko jardueraren garapen egokia bermatzeko.

12. ARTIKULUA- PERTSONA EDO ERAKUNDE ONURADUNAREN ALDETIK DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA EGITEA

Dirulaguntza jasotzen duen pertsona edo erakunde orok plazaratu egin beharko du jaso duen udal finantziarioa eta Udalaren logotipoa ezarri sortzen duen material inprimatu guztietan (kartelak, foiletoak, informazio orriak...), hedabide elektroniko edo ikus-entzuneoetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratzen diren iragarkietan. Horretarako, Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak bere logotipoa emango die pertsona edo erakunde interesdunei.

Halaber, beti errespetatuko da euskararen erabilerarako udal ordenantza bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– erabiltzean subentzionaturiko programa edo jardueren publizitate gisa egiten diren karteletan, testuetan eta agirietan.

Derrigorrezkoa izango da, baita ere berdintasun irizpideak sartzea genero ikuspegia txertatzeko (hizkera eta irudi inklusiboak).

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak subentzionaturiko jarduera guztien publizitatea egin beharko da jarduera egin baino lehen, interesatuta daudenak haietan parte hartu ahal izateko. Halaber, jarduerak egin baino gutxienez **15 egun lehenago** jakinarazi beharko zaio Udalari, egokitzat jotzen diren baliabideak erabiliz zabalkundea emateko.

13. ARTIKULUA- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

13.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo erakunde eskatzaileek 2022ko urtarrilaren 31ra arteko epea edukiko dute dirulaguntza justifikatzeko. Epe horretan subentzio lerroei dagozkien faktura guztiak aurkeztu beharko dira eta eranskinak ere bai, behar bezala beteta eta sinatuta.

13.2. Dirulaguntzen justifikazioa:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren %100a justifikatu beharko da eta ez bakarrik Udalak emandako kopurua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

13.3. Justifikatzeko sistema:

Justifikazioan III. eranskina sartu beharko da, beteta eta sinatuta:

- Kilometrajea justifikatzeko: garraio-gastuak eskatu dituzten pertsona edo erakunde guztientzat.
 - a) Antolatzaile bat dagoenean: elkartea ekitaldira joan dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da eta elkarteak berak egindako agiri bat, non agertuko diren ekitaldira joan diren pertsona guztien izen-abizenak, NANA eta sinadura.
 - b) Antolatzailerik ez dagoenean: elkarteak berak egindako agiri bat, non agertuko diren ekitaldira joan diren pertsona guztien izen-abizenak, NANA eta sinadura.
- Egindako gastuen faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak. Federazioko fitxen kasuan, laguntza eskatuko zaien pertsonen-zerrenda.

- Ordainketaren justifikanteak. Fakturaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa da merkataritza-establezimenduak edo enpresak kobratuta edo ordainduta dagoela adierazten duen zigilua eta eskuzko sinadura jartzearekin; edo enpresariak idatzitako agiri batekin, non adieraziko duen faktura zein den eta eskudirutan ordaindu dela. Banku-transferentziaren bidez egiten bada ordainketa, justifikantea erantsi beharko da. Derrigorrezkoa izango da banku-transferentziaren bidez ordaintzea 1.000 eurotik gorako gastuak. 100 eurotik beherako fakturak ez dute justifikanterik beharko. Kasu horretan nahikoa izango da elkartearen idazkariaren ziurtagiria, non esango duen faktura ordainduta dagoela (VI. eranskina).
- Egindako publizitatearen ale bat, non jasota egongo den Valle de Trápaga-Trapagarango udala babeslea izan dela, "Valle de Trápaga-Trapagarango Udala" inskripzioarekin eta udalaren logotipoarekin. Halaber, euskara eta gaztelania batera erabili beharko dira. Gainera, han agertzen den hizkera eta irudiak ezin izango dira sexistak izan eta rol matxistak iraunarazten dituztenak.
- Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren dirulaguntza jaso duen elkarte batek gerora jakiten badu beste erakunde publiko edota pribatu baten dirulaguntza jasoko duela, berehala aurkeztu beharko dio Udalari aitorpen bat erakunde hori eta jasoko duen zenbatekoa zein den adieraziko duena. (BEHAR BEZALA SINATUTA), Udal diru-zaintzan itzultzeko dirulaguntzaren gehiegizkoa.
- Aurkeztutako faktura guztiak ez badute estaltzen aurrekontu subentzionagarriaren %100a, edo proiektu edo jarduera subentzionagarria ez balitz egingo, onuradunak horren berri emango dio Udalari, Udal Diru-zaintzari itzultzeko dagoeneko ordaindu dena edo, emandako dirulaguntzaren gehiegizkoa.
- Erantzukizunpeko adierazpena, hitzarmen honen ereduaren araberakoa (IV. eranskina).
- V. eranskina, beste erakunde batzuk emandako subentzio edo dirulaguntzei buruzkoa behar bezala beteta.
- Sarien kasuan, Eskudirutako Sarien Ziurtagiria aurkeztu beharko da, (VII eranskina) behar bezala beteta eta abonu-agiria. Sarien gutzirako zenbatekoa inoiz ez da izango 500 €-tik gorakoa.

13.4. Ez justifikatzea edo nahikorik ez justifikatzea:

Justifikazioaren obligazioa ez bada betetzen edo justifikazioa ez bada nahikoa, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze interesekin batera, Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikulua 1. atalean ezarritako terminoetan.

14. ARTIKULUA- EZ BETETZEA ETA DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Onuradun pertsonak edo erakundeak ez badituzte betetzen Oinarri hauetan edo Udal Dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailean ezarritakoaren arabera dirulaguntzak jasotzeagatik ezarri zaizkien baldintzak; edo aurkeztutako datu eta agiriak faltsuak badira edo ezkutatu egiten badira, dirulaguntza bertan behera geratuko da eta behar ez bezala ordaindutako kopurua itzuli beharko da.

15. ARTIKULUA- GARAPENA ETA INTERPRETAZIOA

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik balego, Alkateak ebatziko du dagokion Informazio Batzordearen alde aurreko txostenarekin.

Oinarri hauetan aurreikusitako guztian, Valle de Trápaga-Trapagarango udaleko Udal dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailean xedatutakoa beteko da (BAO zk.: 232, 2020ko abenduaren 2koa).

I. ERANSKINA

EMAKUMEEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA-ORRIA

Nik..... jaunak/andreak, NAN zk.
..... dudanak, helbide honetan bizi naizenak
....., posta kodea
....., telefonoa..... emaila

(e-maila jarritz gero, baimena ematen da jakinarazpen guztiak lehentasunez egiteko bide horretatik).

.....erakunde/elkartearen
..... naizen aldetik.

Elkartearen egoitzaren helbidea hauxe da:.....,
telefonoa:..... helbide elektronikoa:(Emakume
bazkide kp.: _____, gizon bazkide kp. _____).

Azaltzen dut:
Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak urtean egin duen

Emakumeen elkarteentzako dirulaguntzen deialdia ikusirik eta haren oinarriak ezagututa

Eskatzen dut:

Lehenengoa-euroko dirulaguntza eman diezadatela, ondorengo gastuak
finantziatzeko:

Ikastaroa/Jarduera	Aurrekontua	Eskatutako zenbatekoa
.....
.....
.....

Eskatutako dirulaguntzaren kopuru osoa €

Eta horretarako deialdiaren 6. artikuluan aipatzen diren agiriak eransten ditut eta egiazkoak direla ziurtatzen.

Bigarrena.- Eskera berriak edo aldaketak egiten badira, dirulaguntza ordaindu ahal izateko banku-
kontuaren datuak adierazi beharko dira [Entitate, kontu zenbakia (IBAN), titularra eta NAN].

Jasotako edo eskatutako beste diru-ekarpen/subentzio batzuk:

	Zenbatekoa			
1 Erakundea	€	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		Emana	Ukatua	Sin resolver
2 Erakundea	€	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
		Emana	Ukatua	Sin resolver

....., ko.....ren(e)an.
(Eskatzailearen sinadura eta zigilua)

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Alkateari.-

II. ERANSKINA

HIRUGARREN ADINEKOEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO INPRIMAKIA

Urtea - Año

Erakunde eskatzailea – Entidad solicitante

Diruz lagun daitekeen aurrekontua

Presupuesto subvencionable

 €

Udalako dirulaguntza

Subvención Ayuntamiento

 €

Burutzapen datak

Fechas de realización

EGITASMOAREN TEKNIKARI ARDURADUNA (Egitasmoaren edukien argibideetarako harremana)

PERSONA TÉCNICA RESPONSABLE DEL PROYECTO (A efectos de contacto para adaracion de contenidos del proyecto)

Sexua - Sexo

Izena - Nombre

Lehen abizena - Primer apellido

Bigarren abizena - Segundo apellido

<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
--------------------------------------------	-------------------------------------------

Telefonoa - Teléfono

Posta elektronikoa - Correo electrónico

PROIEKTUAREN FINANTZAKETA – FINANCIACIÓN DEL PROYECTO

Emandako edo eskatutako beste ekarpen/dirulaguntza batzuk – Otras aportaciones/subvenciones concedidas o solicitadas

Zenbatekoa - Importe

erakundea - Entidad	Importe	Onetsia Concedida	Ezetsia Denegada	Ebatzi gabe Sin resolver
1. erakundea - Entidad 1	€	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. erakundea - Entidad 2	€	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. erakundea - Entidad 3	€	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

HONEKIN BATERA AURKEZTUTAKO AGIRIAK (Erantsitako dokumentazioa adierazi)

DOCUMENTACION QUE SE ADJUNTA (Señalar la documentación que se adjunta)

<input type="checkbox"/>	Dirulaguntza justifikatzeko memoria, III. eranskinari jarraiki - Memoria narrativa justificativa de la subvención, según Anexo III
<input type="checkbox"/>	Dirulaguntza justifikatzeko memoria ekonomikoa, III. eranskinari jarraiki - Memoria económica justificativa de la subvención, según Anexo III
<input type="checkbox"/>	Nominak, fakturak eta proba gisa antzeko balioa duten bestelako agiriak, baita horiei dagozkien ordainagiriak ere (deialdiaren 10. artikuluan adierazten den bezala). Nóminas, facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente así como los justificantes de pago correspondientes (tal y como se señala en el artículo 10 de la convocatoria).
<input type="checkbox"/>	Proiektuak beste finantza iturriren bat badauka (funts publikoak zein pribatuak), funts horiek (laguntzak, dirulaguntzak,...) eman edo ukatu izana frogatzen duten agiriak. En caso de cofinanciación del proyecto mediante otros fondos públicos o privados, documentación que acredite la concesión o denegación de estos fondos (ayudas, subvenciones...).
<input type="checkbox"/>	Diruz lagundutako jarduera justifikatzeko dokumentazio gehigarria (txostonak eta memoria zabatagoak, argitalpenak, publizitatea, argazkiak eta abar). Documentación anexa de justificación de la actividad subvencionada (informes-memorias ampliadas, publicaciones, publicidad, fotografías, etcetera.)



DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO MEMORIA
MEMORIA NARRATIVA JUSTIFICATIVA DE LA SUBVENCION

HELBUEN BETETZE MAILA - GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS

Eskabidean jasotakoa eta berdintasun printzipioari lotutako alderdiak kontuan izanda, zein bete diren eta zein ez eta zergatik adierazi.

Indicar, considerando lo recogido en la solicitud y los aspectos relativos al principio de igualdad, cuáles se han cumplido y cuáles no y por qué.

Hurrengo taularen arabera, lagun onuradunen edo partehartzaileen sexua adierazi edota interesgarri izan daitezkeen bEste ezaugarri batzuk (adina, nazionalitatea, ...).

Indicar el sexo de las personas beneficiarias y/o participantes según el cuadro que se incluye a continuación; así como otras características que se consideren de interés (edad, nacionalidad...).

Parte-hartzaileen kopurua ekitza eta sexuaren arabera - Personas participantes por actividad y sexo (*)

	Guztira Total	Emakumeak Mujeres	Gizonak Hombres	Emakumeak % % Mujeres
1. jarduera - Actividad 1				
2. jarduera - Actividad 2				
3. jarduera - Actividad 3				
4. jarduera - Actividad 4				



(*): Ekintza mota kontuan harturik, sexua adieraztea desagokia izanez gero, adierazi eta justifikatu.

(*): En el caso de que por el tipo de actividad de que se trate, no proceda realizar el desglose por sexo, señalarlo y justificarlo.

JARDUEREN GARAPENA - DESARROLLO DE LAS ACTIVIDADES

Azkenean burutu diren jarduerak adierazi, zelakoak izan diren, antolakuntza, gauzatzeko datak, garapena, metodologia, burrutako edukiak eta berdintasunari lotutako alderdiak, etab. zehatzuz

Indicar las actividades finales que se han llevado a cabo, detallando en qué han consistido, organización, fechas de realización, desarrollo, metodología, ejecución de contenidos y aspectos ligados a la igualdad, etc.

1. jarduera • Actividad 1

2. jarduera ■ Actividad 2

3. jarduera • Actividad 3

4. jarduera ■ Actividad 4



EMAITZEN EBALUAZIOA ETA BALORAZIOA ■ EVALUACION Y VALORACION DE LOS RESULTADOS

Balorazio orokorra (erakundearen balorazioa, lagundu duten profesionalena eta bertan parte hartu duten pertsonena ere).

Valoración general (incluir la valoración de la entidad, de las y los profesionales que han colaborado y de las personas participantes).

Genero eragina (azaldu proiektuak zer eragin izan duen eskabidearen justifikazioan jasotakoan)

Impacto de género (explicar qué efectos ha tenido el proyecto sobre lo recogido en la justificación de la solicitud)



B. Bidaiak – Viajes

B.1. GARRAIO PRIBATUA – TRANSPORTE PRIVADO

Ibilbidea Trayecto	Kilometroak Kilometros	Zenbatekoa/km (gehienez 0,29 €/km) Importe km (máximo 0,29 €/km)	Guztira Total
Gastuak, guztira - Total gastos			

B.2. BESTE GARRAIO MOTA – OTRO TIPO DE TRANSPORTE

Zenbakia Número	Kontzeptua Concepto	Hornitzailea Proveedor(a)	Fakturaren data Fecha factura	Ordaintzeko data Fecha pago	Zenbatekoa Importe (1)	BEZ IVA (2)	Guztira Total
Gastuak, guztira - Total gastos							

BIDAIK GUZTIRA (B1+B2) – TOTAL VIAJES (B1+B2)

(Erantsi profesionalak kontratatzeari lotutako egiaztagiria, fakturak edo froga-balio baliokidea duten dokumentuak, bai eta horien ordaintzaren justifikazioa ere).

(Adjuntar justificantes vinculados a la contratación de profesionales, las facturas o documentos de valor probatorio equivalente así como la justificación de su pago).

Gastuak, guztira ■ Total gastos

€

Gastuak, guztira (A + B) ■ Total gastos (A + B)

€



Eskatzailearen/Ordez kariaren sinadura eta zigilua - Firma de la persona solicitante/representante y sello

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzen duen araudiak ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu zure datuak honako fitxategi hauetan sartuko direla:

☐ Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren ardurapeko fitxategietan, osoki kudea dezan administrazio honen gizarte-zerbitzuen prestazioa.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango duzu. Horretarako, idazki bat igorri behar duzu Udal honetara, zure NANaren edo haren pareko beste identifikazio-agiriren baten kopia erantsita.

Era berean, jakinarazten dizugu zure datuak erakunde jakin batzuei jakinarazi ahal izango zaizkiela; hain zuzen ere, ematen dituen zerbitzuen kudeaketan laguntzeko.

BAIMENA EMATEN DIOT Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari beharrezko datuak eska ditzan, baina bakarrik Etxez Etxezko laguntzaren zerbitzu eta prestazioak jasotzeari buruzko araudian ezartzen diren baldintzak eta eginbeharrak betetzen ote diren egiazta dezan. (AEAT, INSS, INEM / Lanbide, Ogasun eta Finantzen Foru Dekretua eta beste zerga-agentzia batzuk, bizi den udaleko Errolda-bulegoa eta Erregistro zibila, INE, etab.)

BAIMENA EMATEN DIOT Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari berarekin hitzarmena duten Erakunde eta Administrazio Publikoei behar diren datuak **laga** diezazkien gizarte-zerbitzuen arloan beren eskumenekoak diren zerbitzuak eta prestazioak kudeatzeko eta hobeto emateko eskuratu ditzakeen arreta zerbitzuak.

Nire erantzukizunpean adierazten dut:

Eskabide honetan jarritako datuak egiazkoak direla.

Neure gain hartzen dut Valle de Trápaga-Trapagarango Udalari jakinarazi beharra nire diru edo ondarean, bizikidetasun egoeran eta bizilekuan aurrerantzean gerta daitezkeen aldaketak, eta, bereziki, ospitale edo asistentzia-zentroetan sartu izana.

Hartu ditzakedan prestakuntza eta zerbitzuen jarraipen eta kontrolarako erreztasunak emateko konpromesua onartzen dut.

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido por la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, y su normativa de desarrollo, **le informamos** que sus datos serán incorporados:

☐ a los ficheros responsabilidad del Ayuntamiento de Valle de Trápaga- Trapagaran, para gestionar de manera integral la prestación de servicios sociales de esta Administración.

Ud. podrá ejercer sus **derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición** dirigiendo una comunicación por escrito a este Ayuntamiento, en la que se incluya una copia de su DNI u otro documento identificativo equivalente.

Asimismo, **le informamos** que sus datos podrán ser comunicados a las Entidades y Administraciones Públicas conveniadas por el Ayuntamiento para colaborar en la gestión de los servicios prestados por el mismo.

AUTORIZO al Ayuntamiento de Valle de Trápaga-Trapagaran a **solicitar los datos necesarios** solo a los efectos de comprobar el cumplimiento de los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa para el acceso a los servicios y prestaciones del Servicio de Ayuda a Domicilio, a las diferentes Administraciones titulares de los ficheros de datos que sean necesarios (AEAT, INSS, INEM / Lanbide, Departamento Foral de Hacienda y Finanzas y otras agencias tributarias, Oficina de Padrón Municipal de residencia y al Registro Civil, INE, etc ...):

Con la firma de la presente solicitud:

Declaro que son ciertos los datos consignados en la presente solicitud.

Asumo la obligación de comunicar al Ayuntamiento de Valle de Trápaga-Trapagaran cualquier variación que pudiera producirse en mi situación económica-patrimonial, de convivencia, de domicilio y, en especial, en ingreso en centros hospitalarios o asistenciales.

Asumo el compromiso de facilitar el seguimiento y control de las prestaciones y servicios que en su caso se me pudieran conceder

n, 20 (e)ko

En

, a

de

de 20



III. ERANSKINA

..... jaunak/andreak , NAN zk.
..... duenak, bere izenean edo IFZ
..... duen
erakundearen izenean, kontutan harturik azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluaren 2. eta 3. atalak eta aipatu legeak onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Edren 27. artikulua.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

egiten du Valle de Trápaga-Trapagarango udalaren aurrean, ordezkaten duen erakundea 2021 urteko deialdiko dirulaguntza izendunen onuradun izan dadin, eta halaxe dio

- a. Ez dagoela diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo baten bidez kondenatua.
- b. Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik ez duela eragin, erruduntzat jo den kausagatik.
- c. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- d. Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren arabera diru-laguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenik ez duela jaso ebazpen irmoaren bidez.
- e. Zigor- edota administrazio-zehapenik ez izatea sexuagatik bereizkeriagatik edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko arau-hausteengatik, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondorioz, eta abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legislatiboaren ondorioz, zeinaren bidez onartzen baita Gizarte alorreko arau-hauste eta zehapenei buruzko Legea eta martxoaren 22ko gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren hamalagarrenaren xedapen gehigarriaren testu bategina (besteak beste, mugarik ezarri gabe).

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 202....koren(e)an

Sinadura eta zigilua



IV. ERANSKINA

BESTE SUBENTZIO EDO DIRULAGUNTZA BATZUK JASO IZANAREN ZIURTAGIRIA

..... jauna/andrea,
elkartearen naizen aldetik

AITORTZEN DUT: (badagokio baino ez jarri)

EZEZKO KASUAN:

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren dirulaguntza jaso duen programa garatzeko ez dudala eskuratu beste subentzio edo laguntzarik, ez publiko ez pribaturik, ez nazional ez nazioartekorik.

BAIEZKO KASUAN:

Valle de Trápaga-Trapagarango Udalaren dirulaguntza jaso duen programa garatzeko, honako laguntza hauek eskuratu ditudala:

ERAKUNDEA	PROGRAMA	IFZ	ZENBATEKOA

Diru-kopuru hori honako gastu hauetarako erabili dela:

JARDUERA	ZENBATEKOA

Dagozion ondorioetarako sinatzen dut

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 202.... (e)ko..... ren(e)an

Sinadura eta zigilua



V. ERANSKINA

FAKTURAK ORDAINDU IZANAREN ZIURTAGIRIA

..... and./jn.

..... enpresa/saltokiko gisa.

Enpresaren IFZ:

Kokagunea:

JASOTA UZTEN DUT:

..... zk-ko faktura, data honetan ordaindu zela:

.....

Eta sinatu egiten dut dagozkion ondorioetarako:

.....-n, 202....koren(e)an

Sinadura eta zigilua



VI. ERANSKINA

ESKUDIRUTAKO SARIEN ZIURTAGIRIA

..... jaunak/andreak, NAN zk.
..... duenak, Kirol elkarte edo
klubeko den aldetik

JAKINARAZTEN DU

..... jaunak/andreak, NAN zk.
duenak eta helbidea,
.....€ jaso dituela SARI gisa, jardueragatik.

Eta horrela jasota gera dadin, ematen dut ziurtagiri hau eta eransten ditut irabazlearen
NANA eta diru hori bankuan sartu izanaren agiria.

.....n, 202....koren(e)an

Elkartearen sinadura eta zigilua

Irabazlearen sinadura